

LEZOKO KUXKUXERAK (II)


Lezon, kuxkuxera, kotila eta berriketa txismosoaren lagunak asko direla dio orain dela gutxi egin den inkesta estratifikatu batek. Jakina da, hori esateko ez zela inongo inkestarik egin behar, baina azkenean badago zertan oinarritzerik.

Inkesta hau 150 foliok osatzen dutenez, eta guztia ez publikatzearren, atal nagusien edo garrantzitsuenak laburtuko ditugu.

Askok dira, dirudienek, kuxkuxerak gure herrian, baina ez daukate horregatik, beren kasa, sakabanaturik. Oso konplexua den infraestruktura propio batetan murgiltzen dira. Zonetan taldekaturik daude. MAFIA baten antzera, talde bakoitzak zona bat kontrolatzen duelarik. Talde edo komando guztiak, jerarkizatuta dagoen kupula batek koordinatzen ditu. Kupula hau hiru kontseilarik osatzen dute. Eta hauek dira zer nolako ekintzak burutu behar diren erabakitzen dutenak. Era berean, komando bakoitzak bere infraestruktura autonomoa ere badu.


Hiru dira komando nagusienak, eta hauek lortzen duten informazio guztia DATU PROZESUEN BANKO batetan biltzen da.

Grafikoki ikus dezagun:



Hiru komandoetatik nagusiena SANTO KRISTO PLAZA-koa da. Plazatik nor, norekin, nola eta zergatik pasatzen den kontrolatzen du gau eta egunez. Santo Kristoko Plazako zenbait balkoietan "Betamovie" eta "VHS" video kamara kamuflatuak dauzkate kuxkuxerek. Dirudienez ere ordenadoreak, herriko zentsoa, argazkiekin ta guzti, hemen omen dago.

Komando honetako kotilak nahiko ezagunak dira herrian, baina badira oraindik pertsona normalak diruditenak. Talde honek San Juan Kalea, Kale Nagusia eta Piku Kalea kontrolatzen ditu, eta inguruko denda eta tabernetan mikrofonoak ezarriak dauzka ezer ez dadin beren eskuetatik kanpo geratu. Jendearen joan etorri guztiak, sistematikoki, prozesatuak daude.



ZUBITXO eta FRONTOI komandoak gazteria kontrolatzen dute gehien. Txerrimuñoko mugimendu guztiak momentu guztietan jarraitzen dituzte, eta frontoiko jendeak zer esaten edo egiten duen ere guztiz kontrolpean dute.

Larunbata gauetan, kupula eta komandoetako "jefa" inportanteenak DATU PROZESUEN BANKO-an biltzen dira. Hemen, ardo goxo, ttantta, pasta eta polborioen artean beren Akelarrea ospatzen dute. Filmatutako video, grabazio eta behaketa guztiak ikusi eta elkar komunikatzen. Inkestak dionez, sorginak bezala jantzi eta, su ondoan, dantzan, salto eta brinkoka, erdi mozkorturik, ibiltzen omen dira. "Kontzilioa" bukatu ondoren, bakoitza bere zonara joaten da besteei informatzera.

Kuxkuxeren organizazio guztiak ikuspegi humanista bat duela esaten du inkestak: "Gure gazteen ohitura, morala eta sentimen erlijiosoak bide onetik zuzentzea da gure helburua. Honela, Pepitan alaba mozkorturik ikusten badugu, amari hotsegiten diogu telefonoz alabaren egoeraz informatzeko. Horrela, Pepitak, bere alabarekin nola jokatu badaki. Era berean Nikolasen semea mezetara joaten ez bada,

guk, segituan, bere gurasoei informatzen diegu. Asko eskertu beharko ligukete Lezoarrek kuxkuxerei. Pentsa ezazue bestela gu gabe zer nolako astakeriak egingo liratekeen gure herrian. Eta ez dira gazteak bakarrik, helduek ere, sarritan, ez dute ejemplo onik ematen."

Kuxkuxera guzien izen-datuak ematea bukaezina izango litzateke. Baina, herriaren informaziorako, kupulako kontseilarien izenak aipatuko ditugu: Zaharrena, eta presidentea edo Kuxkuxera Madre, OXE-PA dugu, eta honen konfiantzakoak diren ASTI eta ANTXISKA.

Besteen izenak ematea, kuxkuxerak gure herrian egiten duten lan altruista, filantropikoa eta, azken finean, osasuntsua hondatzea litzateke.

Bukatzeko, inkestan azaltzen den kuxkuxera baten argazki robotak egingo dugu:

IZENA: Euskalduna, normalean...

ADINA: 69 urte.

LANA: Jubilatua, pensionista edo "sus labores".

SEMERIK?: Ezkonduak danak, bat ere ez edo bakarra.

TELEBISTARIK IKUSTEN? ZER PROGRAMA?: "Ya se que tienes novio".

LIBURURIK IRAKURTZEN?: Bai. "La Revista", "Hola" eta Adios.

DENBORA LIBREA ZERTAN ERABILTZEN?: Kuxkuxeatzeari aparte, edaten.

MEZETARA JOATEN?: Astelehenetan, asteartetan, asteazkenetan, ostegunetan, ostiraletan, larunbatetan eta igandetan bakarrik.

"Gaixoak kuxkuxerak
zertan denbora pasa ez duten
atso zahar eta minberak
zergatik kottorreatzan duzuten
bai al daki Jainkoak berak?"

MIKEL SUSPERREGI